

Astigarragako berriak bertsoan jarriak

Arantzazuko Ama ikastolako 5. mailakoak bertsoan trebatzen ari dira, eta gogo biziz, gainera. Astero jarduten dira trebakuntza lanetan, Egoitz Zelaia bertsolaria gidari dutela. Zortziko handia, koplak, zortziko txikia, doinuak, errimak, potoak, neurriak, eta abar ez zaizkie hain arrotz egiten, eta bertsoarako geroz eta erraztasun handiagoa nabari zaie.



Horrelako etorriarekin, Astigarragako berriak bertsoan kontatzeko ahalegina egin dute. Hona hemen, beraz, kronika, bertsoan:

Lagun asko etortzen da urrutitikan, ta gustura dabiltza gure herritikan, mozkor asko aurkitzen Astiarratikan, Sagardo ona dago sagardotegitan.

Ermita oso goian ere egon arren, motxila hartu eta gora joan ginen, natura handia da esaten dugu ozen, Murgia parkea da politena hemen.

Sagardo etxea dugu gertu hemen bertan, lan asko egiten dute taldetxo horretan, zuhaitz asko dituzte malda ederretan gauza asko ditugu museo honetan.

Arantzazuko Ama ikastetxeko 5. maila

